


# Fiare

Herritarren esku jarritako bankua



2007ko jardueri buruzko txostena

.....  
**Edukia:** FIARE

**Diseinua:** Visualiza.info

**Inprimatzea:** Amaia Digital

Papera %100 birziklatua

## Sarrera

### FIARE Proiektuaren xedea

2011. urtean, kreditu-kooperatiba eratu nahi da, kooperatiba horrek finantza-esparruan jardun dezan, betiere elkartasun-irizpideak baliatuz, eta, ohiko banku-sistemari begira, bestelako irizpideak erabiliz. Erakunde horrek lege-baimen egokia eskatuko du, finantza-erakunde autonomo gisa jarduteko, banku etikoen ikusmiratik abiatuta.

Gure asmoa da herritarrentzat banku-eredu bihurtzea, eta, horretarako, erakundea profesionaltasun-, kalitate-, gardentasun- eta jasangarritasun-irizpideekin kudeatu behar da. Zerbitzuak, orobat, hurbiltasunetik eta pertsonengan konfiantza jarrita eskaini behar dira. Edonondik begira dakiola ere, banku honen helburu nagusia ez da gehieneko etekin ekonomikoak lortzea. Aitzitik, diruaren gizarte-balioa berreskuratu eta jarduera ekonomikoak jarri nahi da mundu zuzenago, gizabidetsuago eta jasangarriago baten zerbitzupean.

### Zer dela-eta banku etikoa?

Egungo banku tradizionalekin gertatu aldera, banku etikoek proposamen berezia egiten dute finantza-bitartekotzaren inguruan, proposamen horren xedea baita gizartea transformatzea. Horrexegatik, banku etikoek zenbait jarduera burutzen dituztenean, besteak beste, kapitala batzeko, inbertsioa lortzeko eta maileguak emateko, horiek guztiak justiziaren zerbitzupean jartzen dira, oso-osoko filosofia baten barruan eta lorpen etikoak iristeko. Ikuspegi horretatik, helburu nagusiak honako hauek dira:

- Jarduera ekonomikoak finantzatzeko direnean, jarduerok eragin positibo eta eraldatzailea izan behar dute gizartearen barnean. Beste modu batera esanda, gizarte, ekologia, kultura eta elkartasunaren arloko enpresa, jarduera eta proiektuei laguntasuna ematen zaie, eta, horrela, gizakiaren garapena sustatzen da, dela Iparraldeko gizarteetan, dela Hegoaldekoetan. Gainera, dirua pertsona baztertuen esku jartzen da, bai eta pertsona baztertu horiekin lan egiten duten erakundeen esku ere.
- Aurrezki eta inbertsiorako tresnak eskaintzen direnean, erantzukizuna erabakigarri gertatu behar da. Arean ere, herritarrek aukera izan behar dute, euren aurrezkiekin, jarduera-mota zehatz horiei laguntasuna emateko. Herritarrok erantzukizunez erabaki behar dute finantza-erakundeak nola erabili behar dituen aurrezki horiek. Eta, aldi berean, saihestu behar dute inbertsioak egitea, bidegabekeria ahalbidetzen duten jardueretan nahiz enpresetan, edota gure mundua gazpideratzen duten horietan (arma-trafikoa, lan-esplotazioa, ingurumena suntsitzea ...).

## Proiektuaren oinarriko ezaugarriak


- 1. Kreditua justiziaren zerbitzuean jartzea.** Hainbat balio dira proiektu honen uztarri. Horietatik aurrenekoa da, izan ere, kredituaren bitartez gizartea transformatu eta gizarteratze-prozesuak burutzeta. Horrela, finantza-jardueraren lehentasuneko esparruak izango dira, besteak beste, garapenerako lankidetzeta; gizartean bazterturik daudenak edo baztertuta egoteko arriskua dutenak gizarteratzea; ingurumenaren jasangarritasuna sustatzen duten proiektuetan parte hartzea; eta beste hainbat, horien guztien helburua denean elkartasunaren eta transformazioaren pentsamendua nahiz gizarte-balioak sortu eta zabaltzea.
- 2. Herritarrek osatutako sareekin, finantza-bitartekotzan aritzea.** Proiektu honek erantzuna eman nahi die beharrian jakin batzuei, beharrian horiek erantzun bereziak behar dituztelako. Erantzunok ez dira agortzen kreditua erabili eta finantza-laguntza emanez. Haatik, nahitaezkoa da gizarte zibilaren sareek eta erakundeek parte hartzea, eta horiek guztiek, ikuskera desberdinetatik, transformazioa eragitea. Herritarren arteko bilbudura aberats horretan du proiektu honek bere euskarri eta sorburua. Hori dela eta, proiektu honek bat egiten du gizarteko beste mugimendu batzuen helburuekin ere, mugimendu horiek elkartasuneko ekonomiaren eremuan baitihardute (kasurako, merkataritza zuzenaren arloan ari dira edota gizarte- nahiz gizarteratze-entresak dira). Oro har, proiektu honek bat egiten du justiziaren alde lan egiten duten sare guztiekin.
- 3. Aurrezkiak erantzukizunez, partaidetzarekin eta gardetasunez egitea.** Proiektu hau, izatez, finantza-bitartekotzaren ingurukoa da; baina, proiektu honetan, ezinbestekoa da pertsona fisikoek nahiz erakundeek parte-hartze aktiboa. Are gehiago, pertsona eta erakunde horiek prest egon behar dira euren aurrezkiak ez-ohiko banku-proposamen baten zerbitzuean jartzeko. Banku-tresna berria sortu nahi da, tresna hori herritarren nahiz horien erakundeek eskura eta zerbitzuean egon dadin. Proiektu honetan, azken finean, gardentasuna eta partaidetza izan behar dira nortasun-zeinuak.
- 4. Irabazteko asmorik gabe, guztion interesa asebetetzea.** Proiektu honek ez dauka irabazteko asmorik: finantza eta bankuen eremuan, errentagarritasunari buruz irizpide jakin batzuk erabili ohi diren arren, irizpide horiek ez datoz bat proiektu honetan onetsitakoekin. Egia esateko, beharrezkoak dira proiektuaren egiazko bideragarritasuna eta jasangarritasuna; baina errentagarritasuna lortzea eta etekin ekonomikoak eskuratzea ez dira haren helburu. Horregatik, parte-hartzaileen motibazio nagusia eta bakarra ez da, ezta hurrik eman ere, gaindikin ekonomikoetatik onurak ateratzea.
- 5. Lankidetzeta, lurraldean dauden beste Sare batzuekin.** Lurralde bakoitzean dagoeneko dauden errealitateekin batera lan egitea, finantza-errealitate etiko zabala eta orotarikoa osatu ahal izateko.






## Aurrezkia

### GORDAILUTUTAKO AURREZKIA GUZTIRA



2007. urtean proiektua hazteko joerari ekin zaio, urte-arteko tasa %29koa izanik, eta 2.149.445€ko gehikuntza erdietsiz.

### LIBRETA-KOPURUA 2005-2007. URTEETAN




Libreta-kopurua ere modu nabarian hazi da, zenbatekoak 2006. urtean baino baxuagoak izan arren. 157 libreta berri erregistratu dira, alegia, aurreko urtean baino %62 gehiago.




# Aurrezki

## KOPURUA, AURREZKI-MOTAREN ARABERA



Grafikoan ikus daitekeen bezala, gehien kontratatu den produktua da 48 hilabeterako Aurrezki izenekoa, eta horrek kopuru osoaren % 40 suposatzen du; beste hitz batzuek esanda, gure bazkideen konpromisoa egonkorra da. Azpimarratu behar da, alabaina, Aurrezki-berreskuragarritasun izeneko produktua (eperik gabeko aurrezkiak) ez duela gainditzen % 15.

## AURREZKIEN DESTINOA AUKERATzea




Orain arte bezala, presazko finantza parte-hartzea behar duten arloak aukeratu izan dira: hegoaldea eta gizartearen baztertuta egotea. Haatik, lankidetzaren esparrua apur bat jaitsi den bitartean, neurri berean igo dira, hala ingurumenaren arloa, nola destino guztiak modu berean baloratzen dituen aukeraketa (grafikoan Edozein destino bezala agertzen dena).




Ceit Cases: Bartzelona  
 Pentasac Fundazioa: Bizkaia

### 2007KO AURREZKIA ORDEZKARITZA BAKOITZEKO



Madril eta Gasteizen ere iaz hasi ziren halako jarduerak. Aipatzeko modukoa da Madrilen lortutako aurrezkiak, bertan lehenengo ekitaldia zela kontuan hartuta. Donostian ere gehikuntza esanguratsua gertatu da. Bartzelonako bulegoko datuak, ostera, ez dira erregistratu, bulego hori egun batzuetan bakarrik ireki zelako 2007. urtean.



### METATUTAKO AURREZKI ORDEZKARITZA BAKOITZEKO



Oraingoan ere aitzindariak aitzindari, Bilbo eta Iruña baitira hiririk kontuzkoenak aurrezkiak batzerakoan; zernahi gisaz, garrantzi erlatiboa jaitsi egin da, aurreko urteekin alderatuz gero.

# Finantzaketa


## FINANTZAKETA, AUTONOMIA-ERKIDEGO BAKOITZEAN



**Guztira: 5.666.000**

Aurreko ekitaldiei begira, nabarmendu behar da emeki-emeki finantzaketa-jarduerak hasi direla bai Gaztela eta Leonen (Burgos), baita Katalunian ere. Bizkaia bere lehengo kopuruari eutsi dio, baina Andalusia eta Nafarroaren parte-hartzea ere igo da.

## FINANTZAKETEN DESTINOA



Gure bezeroek (persona zein erakundeek) adierazitako borondateari ekinez, hauek dira finantza-jarduerarik gehien erakusten duten arloak: hegoaldea eta gizarteaz baztertuta egotea. Aurreko ekitaldiaz denaz bezainbatean, modu nabarian hazi dira hurrengo esparruak: ingurumena (nekazaritza ekologikoaren inguruko proiektuak) eta bizitza-kalitatea (gizarte-etxebizitza); halaber, neurri berean jaitzi da beste destino batzuen finantzaketa.





# Finantzatutako proiektuak



IDEAS: Honduras

2007. urtean 17 proiektu berri finantzatu dira, jarduera hasi zenetik guztira 27 zenbatuz. Bestela esanda, 2007. urtean Fiareren izatea sendotu egin da erakunde desberdinetan (2007, zenbateko osoaren % 63). Horrek baieztatzen du erakundeek gudan duten konfiantza, eta elkarrekin batera hazten ari gara.

Jarraian, 2007. urteko finantzaketak zerrendatuko ditugu:

**IDEAS KOOPERATIBA.** Ideas izeneko kooperatiba (Kordoba), merkataritza zuzenaren aldeko kooperatiba da, eta hegoaldeko datozen produktuen zuzeneko inportazioa jorratzen du; horretara, merkataritza zuzenaren printzipioen mende, kooperatiba horrek ekoizleekin batera ahaleginak egiten ditu, trukatzeko-katearen barruan gizarte-eragingarritasuna egiazkoa izan dadin.

2007. urtean eskatu diren finantzaketek 2006an hasitako eragiketarik sendotu dituzte; halakoan helburua izan da, batetik, Ideas deiturikoaren egoitza egokitztea, eta, bestetik, kooperatibaren Gabonetako kanpainaren ondorioz sortutako diruzaintza-beharrizanei aurre egitea.

**ELIZBARRUTITAKO MISIOAK.** Elizbarrutietako Misioak (gaztelaniaz MMDDVV) (Bizkaia) izenekoaren jarduera nagusia da euskal misioak antolatzea mundu osoan barrena; ildo horri ekinez, erakunde hori lanean ari da, gizartea zuzenagoa izan dadin, eta programa jakin batzuk bultzatu ditu, programa horiek pertsona hartu dutenean euren jardueraren ardatz moduan.

Kasu honetan, eskatu diren finantzaketen destinoa izan da lokal bat erosi eta birgaitzea, Babahoyon (Ekuador) banku erkidea eratzeko. Beste alde batetik, bankua kapitalizatzeke eta banku horrek sendotze-baliabideak izateko ekarpena finantzatu da.

**IÑIGO HERNANI (LA MONTAÑUELA** izeneko proiektua). “La Montañuela” deitutakoa (Burgos) nekazaritza ekologikoaren inguruko proiektua da, eta, horren bitartez, barazkiak zein ortuariak saltzen dira, nekazaritza ekologikoari lotutako printzipioen barruan. Nekazaritza-proiektu horretan, erantzukizuna erdibanatzen da, eta bezeroak La Montañuela deiturikoaren bazkide bihurtzen dira, betiere esparru geografiko mugatu baten barruan; produktuak zuzenean ematen zaizkie “kontsumo-taldeei”, bitartekoak bazter utzita.

Kasu horretan, finantzaketa eskatu da proiektua hasterakoan sortu diren finantza-beharrizanak estaltzeko.

**SAN VIATOR EUSKALHERRIA ELKARTASUN-ZERBITZUAREN ELKARTEA** (gaztelaniaz SERSO). San Viator Euskalherria Elkartasun-zerbitzuaren Elkarteak (Araba) arazoak



EBMI: Babahoyo, Ekuador



La Montañuela, Burgos

## Finantzatutako proiektuak

dituzten taldeekin egiten du lan, bai munduaren hegoaldean, baita gertuago daukagun errealitatean ere. Elkarte horrek lankidetzak-proiektuak bultzatu ditu gutxiago garatu diren herrietan, eta bere zeregin nagusia izan da modu iraunkorrean jardutea herri horietako elkarteekin batera.

2007. urtean SERSOK hainbat finantzaketa eskatu dizkio Fiareri, 2006. urtean Boli Kostako ikastetxe bat birgaitzeko eman zitzaion mailegua osatzeko (autobusak erosi dira, umeak ikastetxera joan ahal izateko). Horrez landara, presazko laguntzaren aurrerapena finantzatu da, Boli Kostan izandako gerraren ostean itzultzen diren errefuxiatuei begira.

**MARIOLA DELS SORELLS.** Valentziako enpresa horrek lan-munduan sartzea jorratzen du, eta eraikuntza-sektorearen bitartez, lan-munduan sartzeko bideak sortu ditu, gizartearen modu nabarian baztertuta dauden pertsonentzat. IUNA Promotora social izenekoak bultzatu du Mariola enpresa.

2007. urtean finantzaketa eskatu zen, enpresa hori abian jartzeko.

**LA COMA NOVATERRA ELKARTEA.** Erakunde horrek ere Valentziatik egiten du lan, pertsona eta gizarte-talde behartsuei laguntzeko. Horrenbestez, batetik, halako bizitza-nahiz lan-baldintzak hobetzen ditu, pertsonen arteko harremanak bultzatuz, eta, bestetik, talde-sentimendua zein gizartearen aldeko boluntarioen kultura pizten ditu.

Oraingoan finantzaketa eskatu da elkarte horren eguneroko kudeaketa laguntzeko, diru-laguntzen aurrerapen gisa.

**PAZ AHORA ELKARTEA.** Madrilen dagoen elkarte horrek defendatzen du gida-lerro baketsuak behar direla herrien arteko harremanetan, gizakien bizitzari zor zaion begirune, tolerantzia eta elkarriketa baloreekin bat datozen gida-lerroak, hain zuzen. Bertan proposatzen den gizarte zuzenaren eredura talde eta herri behartsuenak bildu behar dira, kultura eta etnia desberdinak batzea bultzatuz (sexuen arteko berdintasuna, gazteek parte hartzea gizarte zibilean berori aldatzeko...)

2007. urtean jasotako finantzaketa "Vacaciones para la Paz 2007" izeneko programaren garapena estaltzen du; horren helburua da kultura desberdinen arteko elkarbizitza ahalbideratzea, gatazka-egoeran dauden kulturetako umeak (Palestina) eta halako arazoekin zerikusirik ez dutenak batuta.

**PEÑASCAL FUNDAZIOA.** Bizkaiko fundazio horren xedea da langabezia dauden gazteei laguntza eskaintzea, lan-munduan sar daitezen. Osoko hezkuntzari lotutako

SERSO, Boli Kostan



Mariola dels Sorells, Valentzia



Paz Ahora, Madril





Elkarte Metal S.L., Nafarroa

proiektua da. Hasieran, hezkuntza arautuan arazoak izan dituzten gaztetxoez arduratzen zen. Gaur egun langabezian dauden helduekin edo prestakuntza eskasa izateagatik lanpostua mantentzeko zailtasunak dituzten helduekin ere egiten du lan.

2007. urtean jasotako finantzaketari esker, Fundazioaren egoitza berria eta trebakuntza-zentroa eraiki dira, Bilboko Bolueta auzoan.

**ELKARTE METAL S.L.** izenekoa. Gizarteratzea eta lan-munduan sartzea ahalbidertzeko zentro horrek Nafarroan du egoitza; horren zeregina da gizartearen desabantailaren bat duten pertsonen laguntzea, hezkuntza- eta lan-esparruetan horien osoko garapena bultzatuz. Bertan gauzatzen den jardueraren nagusia da 40 urtetik gorako pertsonen trebakuntza eskaintzea, metal, fundizio nahiz soldaketaren arloetan, pertsona horiek langabezian daudenean edota zailtasunak dituztenean lan-merkatuan sartzeko.

Kasu horretan jasotako finantzaketak erabili dira, hala jarduerari beste norabide bat emateko, nola jardueraren ondoriozko diruzaintza-beharrizanak zuzenean kudeatzeko.

**ELKARBANATUZ ELKARTEA.** Bizkaiko erakunde horrek gizarte zuzenagoa eraikitzea lortu nahi du, talde behartsuak gizarteratuz eta hezkuntzaren bitartez batez ere gazteak sentibilizatuz. Bizileku-baliabideetan oinarritutako parte-hartze proiektuak garatzen dituzte, etorkin gazteak emantzipa daitezzen, euren ostaturik emateko eta besteekin elkarbizitza ahalbidertzeko gizarte-hezkuntza proiektuen bitartez.

2007. urtean jasotako finantzaketaren helburua izan da elkarte horren zuzeneko kudeaketak sortutako beharrizanak asetzeko.

**CAN CASES KOOPERATIBA.** Etxebizitza Kooperatibaren proiektu bat da, Bartzelonan dagoena. Zenbait pertsona batu dira, etxebizitzaren esparruan beste aukeraren bat izateko, egungo merkatuak eta gizarteak eskaintzen dituenetatik at. Osoko proiektu horrek gizarte-etxebizitzak eman nahi dizkie bazkideei, alegia, ordaintzeko modukoak izateaz gain, inguruneari begirunea dioten etxebizitzak, printzipio ekologiko eta jasangarritasun printzipioekin bat datozelako. Horrez landara, kooperatiba horrek nekazaritza ekologikoaren eta trebakuntzaren arloko proiektuak garatu nahi ditu, inguruneari maila desberdinetan lotuta.

Azken finean, irabazteko asmorik ez duen kooperatiba horren helburua da etxebizitza espekulaziorik gabe erabiltzea. 2007. urteko finantzaketa erabili dute etxebizitza-zentroa eskuratzeko eta kooperatibaren jarduerari hasi nahiz garatzeko.



Elkarbanatuz Elkarte, Bizkaia



Can Cases, Bartzelona



## 2008. urterako erronkak

2007. urtean proiektua lurraldez lurralde jorratzen hasi gara, eta ordezkariak ireki ditugu, bai Madrilgo Gaztambide kalean (Setemen egoitza), baita Gasteizko Sancho el Sabio kalean ere (lehenago Elizbarrutietako Misioren egoitza). Abenduan Bartzelonako bulegoa ireki dugu, bigarrena Bilbokoaren ostean, geure lokala eta langileak jarrita. Hori guztia egin ahal izan da, lurralde desberdinetan proiektua bultzatu duten gizarte-sareei esker. Sendotze hori dela bide, aurrera egin ahal izan dugu jendearen aurrezte-jarduerari dagokionez, jarduera hori % 29an hazi baita. Maileguzen gorakada ere ikusgarria izan dela esan daiteke (% 240), modu nabarian gaudituz delako hasieran ezarritakoa, alegia, jasotakoaren % 50 inbertitzea.

Horrenbestez, iaz jarritako 3 erronkak bete ditugu: sozietate-kapital kanpaina hastea, banku-jarduera sendotzea eta proiektua beste lurraldeetara zabaltzea. 2008. urtean erronka horiei eutsi behar diegu, honetara:

### Erronkak eta lanak

- **Sozietate-kapitala erakartzeko kanpaina.** Euskadin udan hasi zen eta abenduan Katalunian ere plazaratu zen. Madrilén eta Nafarroan hasiko da kanpaina hori, eta beste leku batzuetan ere aurkeztuko da, Valentzian edo Andaluzian, barbarako.
- **Banku-jarduera sendotzea.** Internet bidezko kreditu-kontu korrontearen aurrerapenarekin hasi gara. Kasu bakoitzari egokitutako finantza-produktuak gehiago jorratu behar ditugu, Gobernuak Kanpoko Erakundearen Koordinatzaileekin, Ekonomia Solidarioaren sareekin, Gizarteratze eta Laneratze enpreekin, Merkataritza zuzeneko erakundeekin eta abarrekin elkarlanean arituz.
- **Proiektua beste lurralde batzuetara zabaltzea.** Bartzelonako bulegoaren hasierako jarduerak argituko digu lurralde bakoitzean nola dabilzan parte-hartzeko eredu desberdinak; gisa bertsuan, batetik, Madrilgo jarduera sendotuko da, eta, bestetik, Valentzian zein Espainiako hegoaldean hasiera emango zaie halako jarduera egonkorrei.

### Hasitako jarduerak indartzea

- **Lankidetzak, sareak eta administrazio publikoekin:** dagoeneko hasi da jarduera hori, Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzak Zuzendaritzarekin eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin; elkarlan horri esker laguntza publikoak aurreratu ahal izan dira.
- **Etxebizitza** espekulaziorik gabe erabiltzeko helburua duen eta irabazteko asmorik ez duen kooperatiba baten bitartez (Can Cases), operazio zeharo garrantzitsua gauzatu dugu Katalunian, horren esangura kontuan hartuta.
- **Energia:** kontsumoaren eragingarritasuna eta urripena bultzatu dira, baita energia garbien erabilpena ere.
- **Gizarteari begira sortutako ingurumen-proiektuak:** erkidegoan eusteko moduko nekazaritza-proiektuen adibide moduan, La Montañuela izenekoak (Iñigo Hernani), lehena eta geroa bereizi dituzte sektore honetan.



Banca Popolare Etica

La Nef

Fiare



## Nazioarteko Banku Etikoa

Lan Taldea osatu da Banca Popolare Ética delakoaren (Italia) (<http://www.bancaetica.com>), La Nef izenekoaren (Frantzia) (<http://www.lanef.com>) eta Fiareren artean, 3-5 urte bitarteko epealdian Europar banku etikoaren irizpideen arabera jardungo duen erakunde bakarra osatzearen aukera aztertzeko. 2007. urtean Montegrotton (Italian), Bartzelonan eta Parisen egindako bost bileren ostean, lehenengo emaitza izan da Nazioarteko Banku Etikoaren baterako Adierazpena egitea.

Adierazpen hori egin eta gero, proiektu elkarbanatu horren bideragarritasuna aztertzeko konpromisoa sinatu da. Horren eretzean, hiru lan-batzorde eratu dira, emeki-emeki hurrengo atalei buruzko gorabeherak zehazteko: Gobernagarritasuna, Negozio-Plana eta Antolaketa. Helburua da Europar Banku Etikoaren diseinua eginda izatea, 2008. urteko abendurako.

### Nazioarteko Banku Etikoaren Proiektuari Buruzko Adierazpena

Italiako "Banca Popolare Etica", Frantziako "La Nef" eta Espainiako "Fiare Proiektua" izenekoek balio berberak landu eta antzeko helburuak dituzte. Hori abiapuntua izanik, jakin badakite, ekonomia, gizarte eta kulturaren garapena orekatua izan dadin, arras garrantzitsua dela ekonomia eta finantzen arloko etika. Ondorenez, euren indarrak batu dituzte, euren proiektuak elkarren osagarri izan daitezkeelako, eta, horrela, guztien artean zenbait oinarri ezarri ahal dituztelako, [nazioarteko banku etikoa](#) sortu nahian.

Hiru erakunde horiek batera honako adierazpen hau prestatu eta onetsi dute, eta, euren asmoa da berau izatea bankuaren eguneroko jarduerak gidatuko dituen idazkia.

Adierazpen honek erakunde sustatzaileen oinarritzko balioak barneratzen ditu, eta, izatez, agiri ireki eta dinamikoa da. Edozein erakundek proiektuan parte hartu nahi badu, [nazioarteko banku etikoaren](#) erantzukizun-egiturak baliatuta, adierazpen hau onartu beharko du, eta, horrela, beronen bilakaeran parte hartu ahal izango du.

[Nazioarteko banku etikoaren](#) xedea da gizartean harreman ekonomiko berriak sorraraztea (bereziki, finantza-bitartekotzaren esparruan); horretarako, [nazioarteko banku etikoak](#), zenbait prozesuren bitartez, eragiten du jarduera ekonomikoen esparruan etika berreskuratzea, erantzukizuna gauzatzea eta bestearenganako interesa asetzea. [Nazioarteko banku etikoak](#), ondorenez, berebiziko ahaleginak egiten ditu beste modu batera antola daitezen finantzen, etikaren eta gizarte-garapenerako prozesuen arteko harremanak.

Arean ere, [nazioarteko banku etikoaren](#) guraria egundoko erronka da; azken finean, ekonomia berreraiki nahi du, honako abiaburu hauek aintzakotzat hartuta: edukitzean baino, izatean azpimarra jartzea, eta, horrekin batera, behartsuenei hitza ematea. Egungo errealitatean, erakundeek osatzen

dute gizartea, eta erakunde horiek elkarrekin borrokan ari dira, zeinek bere biziraupena ziurtatzeko. Errealitate horren aurrean amore eman gabe, bidea ireki behar zaie justizia eta elkartasunaren indarrei, gizaki guztiengan baitaude halako indarrak.

Pertsona pribatuek eta erakundeek, **nazioarteko banku etiko**a sortu eta kudeatzen dutenean, gizartean eragina nahi dute izan, eta, horretarako, finantza-bitartekotzaren tresnak erabiltzen dituzte, betiere tresnok partaidetzakoak diren neurrian. **Nazioarteko banku etikoak**, bere ekintzen bitartez, hurrengo helburuak lortu nahi ditu:

- Gizartearen transformazioa sustatu nahi du, inolako indarkeriarik gabe. Sustatze horren xedea da, izatez, gizakiaren nortasuna garatzea, eta **guztion ondasunak** babestu eta onera ekartzea. Transformazio horrekin lortu nahi da gizartea zuzenagoa izatea, dela munduaren iparraldean, dela munduaren hegoaldean, gizaki guztiak euren oinarizko beharrian guztiak asebeteta izan ditzaten eta euren gaitasunak oso-osorik garatzeko aukera izan dezaten.
- Gizartea transformatzeko helburu horretan, eta diru-trukeei dagokienez, pertsona pribatuek eta erakundeek euren erantzukizuna gauzatu behar dute, **finantza etikoak** erabiliz, ekonomiari berezko zaion testuinguruan. Testuinguru horretan, aberastasuna zuzenago banatuko da, **interes-talde** bakoitzak dituen beharrianen arabera.
- Banku etikoa laborategi bihurtu nahi da, laborategi horretan esperimentazioak egin daitezten, eta, esperimentazio horiei esker, balio ekonomikoek esparru horretatik kanpo izan ohi diren balioekin bat egin dezaten (ekonomiaren esparrutik kanpo izan ohi dira, adibidez, doakotasuna, elkartasuna, bestearenganako arreta, boluntarioritza...), betiere ahalik eta **interes-talde** gehien erakarriz (aurreztaileak, kredituaren erabiltzaileak, bazkideak, kontratatutako langileak...) eta beste finantza-erakundeekiko harremanetan arreta berezia jarri.
- Partaidetzan oinarritutako gobernu-sistema sortu nahi du.
- Diruaren zirkulazioari, eta, batez ere, diruaren erabilerari dagokionez, gardentasuna erabili nahi du. Gardentasun hori aplikatu beharko da, halaber, bankuen prozesu guztietan (governatzeko prozesuetan, erabakiak hartzeko prozesuetan...). Horrela, bazkideek eta gizarte zibilak ere beharrezkoa den informazioa izango dute, eta, informazioa baliatuta, gauza izango dira iritzi etikoa izateko eta euren eginkizuna erantzukizunez betetzeko.
- Sustatu nahi ditu neurritasuna eta eragingarritasuna, partaidetza eta erantzukizun pertsonala.
- Lan egiteko orduan kontuan hartu nahi du ekintza ekonomiko bakoitzak zer-nolako ondorioak dituen, batez ere, ondorio ekonomiko hutsak ez direnak.
- Dirua eduki eta trukatzeko ezinbestean etekinak sorrarazten baditu ere, banku-jarduera **guztion interesa** betetzera bideratu behar da, eta jarduera hori izan behar da, hain zuzen ere, etekinak eratortzen dituen.
- Pertsona pribatuek eta erakundeek, halako bankuak eraikitzeke parte hartzen dutenean, ahaleginak egin behar dituzte **guztion interesa** bilatzeko, ez, ordea, euren interes pertsonal hutsa bilatzeko.
- Banku etikoak gizarte zibilarrekin elkarlanean jardun nahi du, gizaki orok dituen beharri zehatzekin erantzuna emateko. Bereziki, baldintza egokiak sortu nahi ditu, baldintza horietan gizakiek euren gaitasunak gara ditzaten eta haien ondoriozko erantzukizunak beregana ditzaten. Horretarako, kreditua jarri behar da gizakion eskura, baina kredituaren oinarria izan behar da, izan ere, nork bere finantzaketa-iturriak itzultzeko gaitasuna.

**Nazioarteko banku etikoaren** iritzi, jarraioak dira haren jardueraren giltzarriak:

- Nahitaezko gertatzen da sare ekonomiko eta finantza-sareen barruan garatzea (aberastasuna sortzea, aurrezki biltzea, ondasunak eta zerbitzuak ekoizti eta erabiltzea...), egiazko ekonomiaren zerbitzu gisa.
- Konpromisoa hartu behar da erakundeak, bere osotasunean, bere balioak koherentziaz gara ditzan; horretarako, **interes-talde** guztiek erantzukizunak bereganatu behar dituzte prozesuan zehar.
- Banku etikoak erkidegoa eratu behar du, eta erkidego hori balio berberak dituzten guztientzat irekita egon behar da.
- Erkidego horren barruan, erabakitze-prozesua garatu behar da, **interes-taldeen** artean bateratzea gerta dadin, eta haien interesen artean ere bitartekotza gauza dadin (kasurako, aurrezkiaren eta aurrezki horren erabileraren arteko harremanetan).
- **Interes-taldee**i finantza-produktu eta -zerbitzurik onenak eskaini behar zaizkie, eta produktu nahiz zerbitzu horiek bat etorri behar dira bankuaren balioekin eta baliabideekin. Bide beretik ere, lehentasunak definitu behar dira, bateratze- eta bitartekotza-prozesu etengabearen bitartez. Horrela, baldintza egokiak jarriko dira, bankua bera transformatu, eta, haientzat banku-eredua izan dadin.
- Banku-sistemaren barruan, banku etikoak autonomiaz eta modu esanguratsuan jardun nahi du, hala ekonomiaren esparruan, nola gizartearen eremuan.

## Sozietate-kapitala

Fiare

Campana de captación de capital social  
Sozietate-kapitala batzeko kanpaina

**Un banco en manos de la ciudadanía**  
**Herriarren esku jarritako bankua**

Hacia una Cooperativa de Crédito de Bonos Éticos    Banku etikoen eremuko kreditu-kooperatibaren bila

Sozietate Kapitala batzeko materialen kanpaina

EAEn Fiare proiektuari laguntzeko elkarteak Sozietate-Kapitala erakartzeko kanpaina jarri du abian, 2007-2010 epealdirako milioi bat eta erdi euro batzeko asmoarekin. Helburu hori erdiesteko, jarduketa-plan zehatza egin da, eta beste ekintza batzuen artean, Fiare Fundazioaren Patronatuak honako konpromiso hau hartu du: bertako bazkide diren hirurogeita hamar erakundeen artean ahalik eta konpromiso gehien lortzea, euren kideek 20.000 eta 35.000 euro bitarteko partaidetzak harpidetzeko. 2007. urteko ekitaldia ixtean, 80.000 euroko balioa osatzen duten partaidetzak batu dira, eta 200.000 euroko ekarpenak egiteko konpromisoak sinatu dira.

# Fiare

Herritarren esku jarritako bankua



EGUNERO:

**Bilbo**

Andra Mari 9, 48005

94 415 34 96

[www.proyectofiare.com](http://www.proyectofiare.com)

[info@proyectofiare.com](mailto:info@proyectofiare.com)

**Bartzelona**

Providència 20, 08024

93 368 99 82

[www.projectefiare.cat](http://www.projectefiare.cat)

[info@projectefiare.cat](mailto:info@projectefiare.cat)

